# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-4302

156/2003 DEKRETUA, uztailaren 8koa, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloen baitan Lantokiko Prestakuntza Modulua (LP) egiteko modua arautzen duena.

Hezkuntza-sistemaren baitakoak diren eta urriaren 3ko 1/1990 Lege organikoak araututako (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoa, lanbide desberdinak garatzeko gaitasuna ematen duten irakaskuntza-multzoa barne hartzen du lanbide-heziketak. Gainera, enpresen baitako etengabeko prestakuntza eta lanerako prestakuntzaren bidez langileen lan-txertatzea ahalbidetzeko ekintzak ere barne hartzen ditu lanbide-heziketak, bai eta horien arteko koordinazioa ziurtatu ere.

Zentzu horretan, Berariazko Lanbide Heziketaren bidez eskaintzen diren irakaskuntzek, balio akademikoko tituluak eskuratzeko balio dutenak, titulu bakoitzari dagokion berezko gaitasuna lortzeko prestakuntza eskaintzen dute.

Horretarako eta urriaren 3ko 1/1990 Lege organikoaren, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoa, 34.2 artikuluan xedatutakoa betez, heziketa-ziklo guztiek nahitaez bete beharreko baldintza da lantokian bertan prestakuntza praktikoa garatzeko fase bat eskaintzea; ildo horretatik, 676/93 Dekretuan eta 447/94 eta 97/97 Dekretuetan adierazi dira Lantokiko Prestakuntza Moduluaren helburuak, programazioa eta garapena.

Horrenbestez, LP modulua prestakuntza lortzeko eta gaitasunak baliozkotzeko espazio bikaina da eta ikastetxearen eta ekoizpen-zentroen arteko koordinazioa beharrezkoa du, gainera, behar den bezala garatzeko. Modulu horri esker lortuko da, irakatsi eta ikasteko prozesuen baitan, ekoizpen-testuinguru errealetan esku hartzea; bide batez, ikastetxean garatutako prestakuntza-prozesuetan ikasleek bereganatu dituzten ezagupen, trebetasun eta jarrerak »eguneroko praktikan» erabiltzeko aukera ahalbidetzea lortuko da, bai eta zenbait kasutan, bestelako gaitasunak bereganatzea ere (eskola-testuinguruan garatu ezin direnak). Beraz, ezaugarri bereziak dituen Heziketa Zikloko lanbide-modulu bat da eta ezaugarri horiek eraginda, ezinbestekoa da ikastetxetik atera eta modulua lantoki batean garatzea.

Hezkuntza-sistemaren arabera definitutako plan orokorraren baitan sailkatuta ageri da xede dugun prestakuntza, hortaz, heziketa-ziklorako aurreikusitako helburuak bete behar ditu. Enpresak debekatuta du ikaskuntza bereganatzeko eta gaitasunak garatzeko lanpostu errealetan ari diren ikasleak esku-lana hornitzeko edo ordezkapen bezala erabiltzea.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-4302

DECRETO 156/2003, de 8 de julio, por el que se regula la realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo (FCT) en los Ciclos Formativos de Formación Profesional.

La formación profesional comprende el conjunto de enseñanzas que, dentro del sistema educativo y reguladas por la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, capacitan para el desempeño cualificado de las distintas profesiones. Así mismo incluye otras acciones dirigidas a la formación continua en las empresas y a la inserción laboral de los/as trabajadores/as mediante la formación ocupacional, garantizando la coordinación entre ellas.

En este sentido, las enseñanzas de Formación Profesional Específica, conducentes a títulos con validez académica, proporcionan la formación necesaria para obtener la competencia profesional característica de cada título.

Para ello, y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 34.2 de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, que establece de forma obligatoria para todos los ciclos formativos una fase de formación práctica en los centros de trabajo, el Real Decreto 676/93 y los Decretos 447/94 y 97/97 especifican las finalidades, programación y desarrollo del módulo de Formación en Centro de Trabajo.

De esta forma, el módulo de Formación en Centro de Trabajo constituye un espacio de formación y de validación de competencias que se desarrolla de forma coordinada entre el centro educativo y los centros productivos. Por medio de este módulo se incorpora a los procesos de enseñanza y aprendizaje la intervención en contextos productivos reales, posibilitando la «puesta en práctica« de los conocimientos, habilidades y actitudes adquiridos en los procesos formativos del centro educativo y favoreciendo la adquisición de competencias que, en algunos casos, no pueden ser abordadas en contextos escolares. Se trata pues de uno de los módulos profesionales que integran el ciclo formativo que, por sus especiales características, debe impartirse en un centro de trabajo y fuera del centro educativo.

Esta formación se enmarca en el plan general de enseñanza establecido desde el sistema educativo y, por tanto, se sujeta a la consecución de los objetivos previstos para el ciclo formativo. En ningún caso ha de entenderse como provisión o sustitución de mano de obra aunque el/la alumno/a lleve a cabo su aprendizaje y desarrolle sus competencias en puestos de trabajo reales.

Alde batetik, heziketa-zikloak garatu ahal izateko garrantzi handiko modulu bat da eta, bestetik, prestakuntza/ekoizpenaren artean harreman orekatsu bat ahalbidetzea lortu behar da; horrenbestez, gaiarekin lotutako araudia agiri bakar batean laburbiltzea eta osatzea komeniko litzateke eta horixe da, hain zuzen, honako Dekretu honetako I. Idazpuruan egin dena. Bertan zehaztuko dira modulua garatzeko baldintzak eta ikastetxearen eta lantokiaren arteko harremanak eta, azkenik, prozesuan parte hartzen duten eragileek, hots, ikasle, ikastetxeetako tutore eta koordinatzaile eta lantokietako instruktoreek, bete beharreko funtzioak adieraziko dira.

Hori guztia burutzeko, eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko, beraz, kostu ekonomiko gehigarriak sortuko dira, bai ikastetxeari dagokionez bai lankide diren enpresei dagokienez, hala nola: enpresetako langile eta instalazioak erabiltzeagatik sortutako gastuak, ikasleak enpresetara eraman behar izatea sortutakoak eta LP moduluko irakasle tutoreek ikastetxetik kanpo egin beharreko ikaslearen jarraipenak sortutakoak.

Ikasleei dagokienez, doakotasun-eskubideaz baliatzeko aukerari lehentasuna emango zaio, Euskal Eskola Publikoaren Legeko 9. artikuluan adierazi denari jarraituz. Helburu nagusia unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-mailetan eskolatzeko aukera ziurtatzea eta, xede dugun moduluari dagokionez, lan-munduan txertatzeko gaitasuna indartu eta ikasleak ekoizpen-munduarekin harremanetan jartzea lortu nahi da. II. Idazpuruan zehaztu dira moduluei dagozkien laguntzak aplikatzeko jarraibideak.

Bestalde, nahitaezko eskola-aseguruak estaliko du Lantokiko Prestakuntza garatu bitartean ikasleak izan dezakeen edonolako arazo edo istripu. Hala ere, kontuan hartu behar da nahitaezko eskola-aseguruak mugak dituela kalte-ordainei eta erantzukizun zibilari dagokienez eta, gainera, kontuan hartu behar da, halaber, 28 urtetik gorako ikasleak asegurutik at geratzen direla, hortaz, Administrazioak harpidetu beharreko asegurú osagarria erabiliko da, bertan barne hartu baitira hezkuntza-sistemaren baitan landu baina zenbaitetan hezkuntza-esparrutik at garatu beharreko jardueren ondorioz hirugarrenek izan ditzaketen istripuak eta erantzukizun zibila estaltzeko baldintza errealak. Xede dugun aseguruaren prestazioak ekitaldi bakoitzean sinatutako hitzarmenen araberakoak izango dira.

Ikastetxeen ardura zuzena izango da ikastetxeetako tutore eta koordinatzaileei dagozkien funtzioak betetzeagatik sortutako gastuen kudeaketa. Administrazioaren mendeko langileen kasuan, ordea, otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuari jarraituko zaio, zerbitzua eskaintzagatiko kalte-ordainei eta ondorengo aldaketei buruzkoa, bai eta kasu bakoitzean aplika daitekeen indarreko araudiari ere. Zentro itunduetako irakasleei dagokienez, gastuak itundutako eskoletako moduluan sartuko dira.

La importancia que este módulo tiene en el desarrollo curricular de los diferentes ciclos formativos, así como la necesidad de encontrar un equilibrio entre formación/producción, hace inevitable recopilar y complementar la normativa existente en un único documento, articulado en el Título I del presente Decreto, que contenga las condiciones de desarrollo, la regulación de las relaciones entre el centro educativo y el centro de trabajo y, finalmente, en las funciones de los agentes que intervienen: alumnos/as, tutores/as y coordinadores/as de los centros docentes e instructores/as de los centros de trabajo.

La realización, seguimiento y evaluación de esta actividad conlleva, por consiguiente, unos costes económicos adicionales, tanto a los participantes de la parte educativa como a las empresas colaboradoras, derivados de la utilización de las instalaciones y personal de las empresas, del traslado de los/as alumnos/as a las mismas y del seguimiento que los profesores/as tutores/as de Formación en Centro de Trabajo deben hacer a los/as alumnos/as fuera del centro educativo.

En el caso de los/as alumnos/as, los costes deben regirse por el principio de gratuidad, tal y como recoge el artículo 9 de la Ley de Escuela Pública Vasca, a fin de garantizar la escolarización en los niveles educativos no universitarios y, en este módulo concreto, como una actividad imprescindible para fomentar la capacidad de inserción laboral e iniciar una relación con el mundo productivo. En el Título II se establecen las directrices para la aplicación de las ayudas correspondientes.

En otro orden, cualquier eventualidad de accidente que pudiera producirse durante la realización de la Formación en Centro de Trabajo es contemplada en las prestaciones del seguro escolar obligatorio. Teniendo en cuenta las limitaciones económicas del seguro escolar obligatorio en materia de indemnizaciones o responsabilidad civil y la exclusión de los/as alumnos/as mayores de 28 años, la Administración tiene suscrito un seguro complementario que fija unas condiciones reales de cobertura por accidentes y responsabilidad civil ante terceros en unas actividades que, aun cuando están dentro del sistema educativo, se desarrollan fuera de su ámbito. Las prestaciones de dicho seguro dependerán de los convenios que se suscriban en cada ejercicio.

Los gastos originados a los/as tutores/as y coordinadores/as de los centros educativos se consideran generados en el ejercicio de sus funciones, por lo que son gestionados directamente por los centros educativos. En el caso de personal al servicio de la Administración se rigen por el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, de indemnizaciones por razón de servicio, y sus posteriores modificaciones, así como por cualquier normativa en vigor que sea de aplicación. En el caso del profesorado de los centros concertados, los gastos se incluirán en los módulos de concertación de las aulas.

Horrez gain, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoa, 34.2 artikuluaren arabera, Hezkuntza Administrazioaren ardura da xede ditugun irakaskuntzak garatu ahal izateko enpresa eta erakundeetan gehitu edo osatu beharreko bitartekoak arbitratzea.

Beraz, testuinguru horren arabera, 1997ko apirilaren 22an Gobernu Kontseiluak onetsitako Prestakuntza Lanbide Heziketako Euskal Planaren baitan Lantokiko Hastapenetako Prestakuntza Programa landu zen eta horrekin lotuta Lantokiko Prestakuntza Plana. Azken horren helburu nagusia da enpresetan behar adina plaza lortzea eta Lanbide Heziketa ekoizpen-prozesuetatik sortutako benetako beharretara egokitzea edo moldatzea. Horretarako, eta Lantokiko Prestakuntzarekin lotuta behar adina plaza (kantitatea eta kalitatea) ziurtatu eta instruktoreek beharrezkoa duten prestakuntza eskaintzeko helburuarekin, erakunde, enpresa-erakunde eta enpresa desberdinekin hitzarmenak sinatu ahal dira. Horrez gain, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko pizgarriak jasoko dituzte enpresek, batez ere emakumeak baztertuta geratzen diren lanbideen kasuan. Pizgarriak emango zaizkie, halaber, minusbaliotasun fisikoak edo psikikoak dituzten ikasleak hartzen dituzten enpresei.

Laburbilduz, Dekretu honen xedea da heziketa-zikloetan Lantokiko Prestakuntza Modulua garatzeko baldintzak zehaztea, horretarako ikasleak garatzen duen prestakuntza-jardueren eta ekoizpen-jardueraren artean erlazio orekatsua ahalbidetu behar delarik; gainera, prozesuan parte hartzen duten eragileen diru-laguntzak arautu nahi dira Dekretu honen bidez, kudeaketa-prozesuak eraginkor egiteko eta errazteko irizpideak jarraituz.

Esandakoa kontuan hartuta eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak proposatuta, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak eta Euskadiko Eskola Kontseiluak esandakoaren arabera, eta Aholkularitza Batzorde Mistoak eta interesa duten gainerako kontsulta-organoek esandakoaren arabera, (e)ko ren (e)ko Gobernu Kontseiluan eztabaidatu ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Xedea.

Dekretuaren xedea da:

– Lantokiko Prestakuntza-modulua enpresan garatzeko baldintzak arautzea. Lantokiko Prestakuntza-moduluaren oinarriak eta gutxieneko irakaskuntzak Errege Dekretuen bidez arautu dira eta Dekretuen bidez zehaztu dira , era berean, bakoitzari dagozkion curriculumak. Horrez gain, Lantokiko Prestakuntza-moduluaren garapenean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetza-harremanak ere arautu nahi dira Dekretuaren bidez.

– Lantokiko Prestakuntza-modulua garatzeko laguntza-programaren esparrua zehaztea.

Por otra parte, el artículo 34.2 de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, establece que las Administraciones Educativas arbitrarán los medios necesarios para incorporar a las empresas e instituciones al desarrollo de estas enseñanzas.

En este contexto, el Plan Vasco de Formación Profesional, aprobado por Consejo de Gobierno de 22 de abril de 1997, establece, dentro del Programa de formación inicial, el plan de Formación en Centro de Trabajo, cuyos objetivos son conseguir plazas suficientes en las empresas y lograr un mayor ajuste de la Formación Profesional a las necesidades de los procesos de producción. Para ello se podrán suscribir convenios con entidades, organizaciones empresariales y empresas al objeto de garantizar plazas de Formación en Centro de Trabajo, suficientes en cantidad y calidad, y la formación necesaria de los/as instructores/as. En otro orden, y para adecuar las prácticas al principio de igualdad de oportunidades de hombres y mujeres en las profesiones en las que éstas se encuentran subrepresentadas, se establecerán incentivos a las empresas. De forma análoga se actuará en el caso de empresas que acojan alumnos/as con discapacidades físicas o síquicas.

En conclusión, el objeto de este Decreto es especificar las condiciones de realización del Módulo de Formación en Centro de Trabajo en los ciclos formativos, estableciendo un equilibrio entre la actividad formativa y productiva que el alumno o alumna desarrolla, y regular las ayudas económicas a los agentes que intervienen, atendiendo a criterios de eficacia y simplificación de procedimientos de gestión.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, oídos el Consejo Vasco de Formación Profesional y el Consejo Escolar de Euskadi, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora y los demás órganos consultivos interesados, previa deliberación y aprobación en Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 8 de julio de 2003,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto:

– Regular las condiciones en que se materializa, en la empresa, el módulo de Formación en Centro de Trabajo, regido por unas bases ya establecidas en los Reales Decretos que establecen los títulos y sus enseñanzas mínimas y en los Decretos que establecen los correspondientes curriculum, así como regular las relaciones de colaboración entre los distintos agentes que intervienen en su desarrollo.

– Establecer el marco del programa de ayudas para el desarrollo del módulo de Formación en Centro de Trabajo.

*2. artikulua.–* Ezarpen-esparrua.

Honako Dekretu honen ezarpen-esparruaren barruan geratzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egon eta urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoa, 30. artikuluan barne hartutako heziketa-zikloak eskaintzeko baimen ofiziala lortu duten ikastetxeak, publikoak eta pribatuak.

I. KAPITULUA

PROZESUAN ESKU-HARTZEN DUTEN ERAGILEEN JARDUERAK

*3. artikulua.–* Lantokiko Prestakuntzaren alderdi orokorrak.

1.– Modulu honetan zehaztutako helburuen bitartez honakoa lortu nahi da:

– Ikaslearen prestakuntza sustatzea, aukeratutako lanbidearekin erlazionatuta dauden egoera desberdinetan ikasleak aktiboki parte hartzea lortzeko.

– Ikastetxearen eta ekoizpen-sektore bat edo gehiagoren arteko erlazioak gauzatzeko esparru bat prestatzea, elkarren artean hobeto ezagutzeko eta prestakuntza eskaintzeko orduan bien arteko koordinazioa lortzeko.

– Ikaslea lan-esparruan eta bertako erlazio-sisteman integratzea, ikasleak lan-esparrua hobeto ezagutzeko eta, modu berean, ekoizpen-erakundeetako etorkizuneko profesionalak prestatzeko.

2.– Hezkuntza Ikuskatzaileek, dagozkien funtzioak behar den bezala betetzeko, ikastetxeetara, publikoak eta pribatuak, sartzeko eskubidea izango dute, bai eta hezkuntza-administrazioak sustatutako edo baimendutako jarduerak garatzen diren zerbitzu edo instalazioetara sartzekoa ere.

3.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak euskal enpresak erakunde-mailan ordezkatzen dituzten enpresa-erakundeekin hitzarmenak sinatzeko ahalmena du, beti ere Langileen Estatutuaren Seigarren Xedapen Gehigarrian zehaztutakoaren arabera jokatzen bada. Langileen Estatutuari buruzko testu bategina martxoaren 14ko 1/1995 Errege Dekretu Legegileak onetsi zuen eta helburu nagusiak dira: enpresetan behar adina plaza lortzea, Lanbide Heziketa ekoizpen-prozesuen beharretara hobeto egokitzea eta instruktoreen prestakuntza eta informazioari laguntzea, bai eta enpresetan garatzen den Lantokiko Prestakuntzaren jarraipena egitea ere.

4.– Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, eskolatze arrunta egingo da. Ildo horretan, beti jarraituko zaio banakako curriculum-egokitzapenei buruz indarrean dagoen araudiari.

5.– Praktikak garatzeko orduan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak hartuko dira.

*Artículo 2.–* Ámbito de aplicación.

Quedan incluidos dentro del ámbito de aplicación del presente Decreto los centros educativos, públicos y privados, radicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi y autorizados oficialmente para impartir los ciclos formativos a los que se refiere el artículo 30 de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo.

CAPITULO I

ACTUACIONES DE LOS AGENTES INTERVINIENTES

*Artículo 3.–* Aspectos generales de la Formación en Centro de Trabajo.

1.– Las finalidades de este módulo contribuirán a:

– Promover la formación del/la alumno/a por medio de su participación activa en situaciones de ámbito productivo relacionadas con la profesión.

– Proporcionar un marco concreto de relaciones entre el centro educativo y las organizaciones de un sector o sectores productivos, favoreciendo el conocimiento mutuo y la coordinación de la formación.

– Integrar al/la alumno/a en el ámbito laboral y en su sistema de relaciones con objeto de favorecer su conocimiento por parte de éste/a, así como el de los/las futuros/as profesionales por parte de las organizaciones productivas.

2.– Para el ejercicio de sus funciones, los/as Inspectores/as de Educación tendrán acceso a los centros docentes, públicos y privados, así como a los servicios e instalaciones en los que se desarrollan actividades promovidas o autorizadas por las administraciones educativas.

3.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá suscribir convenios con las organizaciones empresariales que ostentan la representación institucional de las empresas vascas de acuerdo con lo establecido en la Disposición Adicional Sexta del Estatuto de los Trabajadores, cuyo texto refundido fue aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/1995, de 14 de marzo, con el fin de conseguir plazas suficientes en las empresas, lograr un mayor ajuste de la FP a las necesidades de los procesos de producción y colaborar en la formación e información de instructores/as y en el seguimiento de la materialización de la Formación en Centro de Trabajo en las empresas.

4.– En el caso de alumnado con necesidades educativas especiales se desarrollará una escolarización ordinaria, teniendo en cuenta en todo momento la normativa vigente relativa a adaptaciones curriculares individuales.

5.– Las prácticas deberán adecuarse al principio de igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres.

*4. artikulua.*– Lantokiko Prestakuntza Moduluaren ordutegia.

1.– Ikastetxeen ardura izango da heziketa-ziklo bakoitzari dagokion Lantokiko Prestakuntzaren programaren denborazko garapena antolatzea eta, xede horrekin, kontuan hartuko dira, alde batetik, LPren titulu eta gutxieneko irakaskuntzei buruzko Errege Dekretuetan ezarritako arauak, bestetik Euskal Autonomia Erkidegoan tituluei dagozkien curriculumak, ikasturte bakoitzerako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako oinarrizko arauak eta Dekretu honetan ezarritako jarraibideak.

2.– Lantokiko Prestakuntza-modulua, Heziketa Zikloaren zati den neurrian, ikasturte bakoitzerako erabakitako eskola-egutegiaren lehen egunetik azken egunera bitartean garatuko da bere osotasunean. Hortaz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako araudiari jarraituz, heziketa-zikloko azken ikasturtea amaitu baino lehen egingo da LP moduluaren garapena, ebaluazioa eta kalifikazioa.

3.– Honakoak, bestalde, egutegiari eta ordutegiari dagokienez bete beharreko baldintzak:

– Eskola-ordutegiaren eta egutegiaren barruan garatuko da modulua, alegia, irailetik ekainera bitartean, biak barne.

– Lan-egunetan garatuko da, astelehenetik ostiralera; astean gehienez 25 ordu eta gutxienez 35 ordu egingo dira.

– 5-8 ordu bitartekoa izango da eguneroko jardunaldia. Goizeko eta/edo arratsaldeko txandak bereiziko dira, eskaintza osoko eguneko presentziazko erregimenari dagokionez. Bestelako erregimenen kasuan 2-8 ordu bitartekoa izango da jardunaldia.

– Ez da gaueko ordutegirik eskainiko.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Festen Egutegi Ofizialean adierazitako egunak baliogabeak izango dira lan-ondorioetarako.

4.– Era berean, Lantokiko Prestakuntza garatzeko orduan baztertuta geratuko dira nekagarri eta/edo arriskutsu bezala sailkatutako lanpostuak.

5.– Lantokiko Prestakuntzan garatuko diren praktikei dagokienez, praktiken %10 tutorearekin edo zentroko instruktorearekin biltzeko erabili ahal dira, edo ikastetxean garatutako prestakuntza-jarduerei buruz hitz egiteko.

*5. artikulua.*– Salbuespenen izapidetzeak.

1.– Heziketa-zikloa kokatzen den enpresa- edo industria-sektorearen ezaugarriak kontuan hartuta, zenbait kasutan denboralizazioa eta ordutegia Dekretuan zehaztu denetik desberdina izango da. Zentzu horretan, ikastetxearen curriculum-proiektuan bertan adierazi beharko da aipatu denboralizazioa eta ordutegia aldatu be-

*Artículo 4.*– Horario del módulo de Formación en Centro de Trabajo.

1.– Los centros docentes organizarán y planificarán, en ejercicio de su autonomía, el desarrollo temporal del programa de Formación en Centro de Trabajo para cada ciclo formativo teniendo en cuenta las normas establecidas en los Reales Decretos que establecen los títulos y sus enseñanzas mínimas, los Decretos que establecen los currículum para la Comunidad Autónoma de Euskadi de estos títulos y las normas básicas dictadas por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación para cada curso escolar, así como las directrices establecidas en este Decreto.

2.– El módulo de Formación en Centro de Trabajo, como parte integrante del ciclo formativo, deberá ser impartido en su totalidad entre las fechas de inicio y fin establecidas en el calendario escolar de cada curso académico. Por tanto, su impartición, evaluación y calificación deberá realizarse antes de la fecha prevista para la finalización del último curso del ciclo formativo en la normativa dictada al efecto por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

3.– El calendario y horario cumplirán los siguientes requisitos:

– Se realizarán en horario y período escolar, entre los meses de septiembre a junio ambos inclusive.

– Se realizará en días laborables, de lunes a viernes, con jornada semanal mínima de 25 horas y máxima de 35 horas.

– La jornada diaria estará comprendida entre 5 y 8 horas, en turnos de mañana y/o tarde para régimen presencial diurno en oferta completa. Para otros tipos de regímenes la jornada estará comprendida entre 2 y 8 horas.

– En ningún caso se realizará en horario nocturno.

– Se considerarán inhábiles, a efectos laborales, los días fijados en el Calendario Oficial de Fiestas Laborales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

4.– Igualmente, queda excluida la posibilidad de realizar la Formación en Centro de Trabajo en puestos de trabajo que tengan la consideración de especialmente penosos y/o peligrosos.

5.– Un máximo del 10% de las horas de prácticas de Formación en Centro de Trabajo podrán emplearse en reuniones con el/la tutor/a y/o el/la instructor/a del centro de trabajo y de otro tipo de actividades preparatorias realizadas en el centro educativo.

*Artículo 5.*– Tramitación de excepciones.

1.– Los ciclos formativos que por las características del sector empresarial o industrial en que se enmarquen precisen de condiciones de temporalización y horario diferentes de las establecidas en este Decreto deberán contar, en el proyecto curricular del centro, con la especificación correspondiente y de autorización expresa del/la

har direla eta, horrekin lotuta, Lanbide Heziketako zentroko Zuzendariak berariazko baimena eman beharko du. Aurkakorik esaten ez den bitartean egin ahal izango da salbuespen hau.

2.– Ikasle bati, berak eskatuta,salbuespen-baimena emango zaio, beti ere banakako eskaria bat egiteaz gain eskaria behar bezala arrazoitu bada. Gainera, ikastetxeari dagokio eskaria egitea, horretarako dagokion Lurralde Ordezkaritzako Lanbide Heziketako unitatea jakinaren gainean jarriko duelarik.

*6. artikulua.*– Gutxieneko baldintzak.

Baimenak emateko orduan errespetatu beharreko gutxieneko baldintzak honakoak dira:

– Lantokiko Prestakuntza eskola-egutegitik at garatzeko baimena ematen bada, ekaina, uztaila edo/ta abuztuan jarraian 30 egun naturaleko oporrak zehaztu beharko dira.

– Eguneroko lanaldiak ezingo ditu gainditu 4. Artikuluan eguneroko lanaldiarekin eta astekoarekin lotuta zehaztu diren gehienezkoak.

– Praktiken gainbegiratzaile bezala jardungo dute enpresako instruktore batek eta ikastetxeko tutore batek.

– Praktikek irauten duten bitartean gutxienez 5 langile egongo dira enpresan praktikak egiten dituen ikasle bakoitzeko edo, bestela, ikasleak praktiketan betetzen dituen funtzio edo zereginekin erlazionatutako plantilaren 3/4 gutxienez.

*7. artikulua.*– Lantokiko Prestakuntza Euskal Autonomia Erkidegotik at garatzea.

1.– Lantokiko Prestakuntza Euskal Autonomia Erkidegotik at garatzeko aukera dago, hots, Estatuko beste Autonomia Erkidego bat aukera daiteke, salbuespen bezala. Ikastetxeko zuzendariak baimena eskatu beharko dio, kasu horretan, Lanbide Heziketako Zuzendariari. Edonola izanda ere, baimena lortzen bada ere, Dekretu honetan zehaztutako artikulu guztiak bete beharko dira.

2.– Lantokiko Prestakuntza Moduluaren barruan sartu ahal dira, Europar Batasunak lanbide-heziketarekin lotutako politika zehazteko garatzen diren Hezkuntza eta Politika Programa Europarren baitako praktikak (1999ko apirilaren 26an Kontseiluak hartutako 1999/38 2/CE erabakia). Horretarako, ezinbestekoa izango da aldiro egindako deialdietan onetsitako proposamenetan parte hartzeko aukeratua izatea ikaslea.

*8. artikulua.*– Ikastetxearen eta lantokiaren arteko harremanak.

1.– Ikastetxeak eta enpresak lankidetza-akordio bat sinatuko dute. Bertan zehaztuko dira Lantokiko Pres-

Director/a de Formación Profesional. Esta excepcionalidad se mantendrá en vigor en tanto en cuanto no se produzcan nuevas modificaciones.

2.– Las autorizaciones de excepción para un/a alumno/a, a petición de éste/a, y siempre de forma individual y debidamente fundamentadas, deberá realizarlas el/la Director/a del centro educativo, comunicando tal circunstancia a la Unidad de Formación Profesional de la Delegación Territorial correspondiente.

*Artículo 6.*– Condiciones mínimas.

Las condiciones mínimas que deberán respetarse al conceder las autorizaciones son:

– En los casos en que se autorice la realización de la Formación en Centro de Trabajo fuera de las fechas determinadas en el calendario escolar, deberá establecerse un período vacacional de al menos 30 días naturales consecutivos durante los meses de junio, julio y agosto.

– La jornada nunca podrá superar los máximos establecidos para la jornada diaria y semanal en el artículo 4.

– Las prácticas siempre serán supervisadas por un/a instructor/a en la empresa y un/a tutor/a del centro educativo.

– El personal presente en la empresa durante el periodo de prácticas deberá de ser al menos de 5 trabajadores/as por alumno/a en prácticas o 3/4 del total de la plantilla relacionada directamente con las labores o tareas realizadas por el/la alumno/a en prácticas.

*Artículo 7.*– Realización de la Formación en Centro de Trabajo fuera del territorio de la Comunidad Autónoma Vasca.

1.– Los/as alumnos/as podrán realizar la Formación en Centro de Trabajo en otras Comunidades Autónomas del Estado con carácter excepcional. El/la Director/a del centro educativo deberá solicitar autorización motivada al/la Director/a de Formación Profesional. En cualquiera de los casos, estas autorizaciones no excluirán del cumplimiento del resto de los artículos contenidos en este Decreto.

2.– Las prácticas que realicen los/as alumnos/as en el marco de Programas Europeos de Educación y Formación para la aplicación de una política de formación profesional de la Comunidad Europea (Decisión 1999/382/CE del Consejo de 26 de abril de 1999) podrán ser consideradas, de acuerdo con los criterios establecidos por el centro, parte integrante del módulo de Formación en Centro de Trabajo. Para ello el/la alumno/a deberá ser seleccionado/a para participar en una de las propuestas aprobadas en las convocatorias periódicas que se realicen.

*Artículo 8.*– Relaciones entre el centro educativo y el centro de trabajo.

1.– El centro educativo y la empresa suscribirán un acuerdo de colaboración que recoja las condiciones de

takuntza-modulua burutzeko baldintzak; baldintza horiek lanbide-modulua arautzen duten oinarrien araberakoak eta honako Dekretu honek zehaztutakoaren araberakoak izango dira. Aipatutako lankidetza-hitzarmenean I. Eranskineko ereduan ageri diren klausulak barne hartuko dira.

2.– Enpresan Lantokiko Prestakuntza-modulua garatuko duten ikasleen zerrenda bidaliko dio zentroak enpresari; zerrenda horretan zehaztuko dira ikaslearen NAN zk., heziketa-zikloa eta denboralizaziorako baldintzak (hasiera eta amaierako eguna, ordu-kopurua, txanda...), horretarako II. Eranskineko formatua erabiliko delarik.

3.– Lantokiko Prestakuntza amaitzen den unean amaituko da ikastetxearen eta enpresaren arteko erlazioa.

4.– Era berean, bi aldeetako edozeinek berariaz eska dezake elkarren arteko harremana amaitzea; kasu horretan, idatzizko komunikazio bat bidali beharko zaio beste aldeari (hamabost egun lehenago). Ikastetxearen eta enpresaren arteko harremana etetea hainbat arrazoirengatik eska daiteke:

– Programatutako jardueren garapena oztopatzen denean.

– Hartutako konpromisoak urratzen baditu aldeetako batek, edo praktikak pedagogikoki desegokiak badira edo garatuko den jarduerarekin lotuta indarrean dauden arauak urratu badira.

– Bi aldeek adostu badute.

5.– Gainera, ikasle bat edo ikasle-talde bat ez onartzea erabaki ahal da eta praktika-programatik kanporatu, honako kasu hauetan:

– Inolako arrazoirik gabe ikaslea enpresara bertaratzen ez bada eta/edo behin eta berriro berandu iristen bada.

– Jarrera desegokia agertzen badu ikasleak, aldez aurretik interesdunarekin elkartu ondoren.

***9. artikulua.***– Ikastetxeari dagozkion Jarduerak.

1.– Ikastetxearen ardura izango da bertan eskaintzen diren heziketa-ziklo desberdinen curriculumak garatzea. Xede horrekin landuko da ikastetxearen curriculum-proiektua, zentroaren baldintzak eta gizarte- eta ekonomia-ingurua kontuan hartuko direlarik. Curriculuma lantzeko oinarrizko curriculum-diseinuak erabiliko dira, eta bertan ageri dira zehaztuta, besteak beste, bukaerako gaitasunak, denboralizazioa eta sekuentziazioa, erreferentziazko ordutegia eta ebaluazioa egiteko irizpideak. Horrez gain, Lanbide Heziketako Zuzendaritzak emandako jarraibide teknikoak ere hartuko dira kontuan, bai eta dekretu honetan adierazitako irizpideak ere.

2.– Lantokiko Prestakuntza Modulua egiteko ikasleek eskatutako salbuespen-eskariak izapidetzea, aurreko ataletan adierazi denaren arabera.

realización del módulo de Formación en Centro de Trabajo, ajustándose en todo caso a la normativa que establece las bases que rigen este módulo profesional y las que establece este Decreto. Este acuerdo de colaboración contendrá al menos las cláusulas que se recogen en el modelo del Anexo I.

2.– El centro remitirá a la empresa para su conocimiento la relación nominal de los/as alumnos/as que van a realizan la Formación en Centro de Trabajo en la empresa con indicación expresa de número de DNI, ciclo formativo que realizan y condiciones de temporalización (fecha de inicio y finalización, número de horas, turno, ...) en el formato recogido en el Anexo II.

3.– La relación establecida entre el centro educativo y la empresa finalizará al cumplirse el período para la realización de la Formación en Centro de Trabajo.

4.– Asimismo, la relación podrá darse por finalizada mediante manifestación expresa de cualquiera de las partes, debiendo ser comunicada por escrito a la otra parte con quince días de antelación, siempre que concurra alguno de los siguientes supuestos:

– Fuerza mayor que imposibilite el desarrollo de las actividades programadas.

– Incumplimiento, por alguna de las partes, de los compromisos adquiridos, inadecuación pedagógica de las prácticas o vulneración de las normas que, en relación con la realización de las actividades programadas, estén en cada caso vigentes.

– Mutuo acuerdo entre las partes.

5.– Igualmente se podrán rescindir para un/a alumno/a o grupos de alumnos/as, por cualquiera de las partes, y ser excluido/a/s de su participación en el programa de prácticas en los siguientes casos:

– Faltas repetidas de asistencia y/o puntualidad no justificadas.

– Actitud incorrecta o falta de aprovechamiento, previa audiencia del interesado.

***Artículo 9.***– Actuaciones del Centro Educativo.

1.– Los centros educativos desarrollarán el currículo de los diferentes ciclos formativos que impartan mediante la elaboración del proyecto curricular del centro, adaptándolos a su población escolar y entorno socioeconómico. Para la elaboración de este currículo se utilizarán los diseños curriculares base, en los que están establecidas las capacidades terminales, la temporalización y secuenciación, el horario de referencia y las directrices para el desarrollo de la evaluación. Asimismo se tendrán en cuenta las instrucciones técnicas emitidas por la Dirección de Formación Profesional y las directrices establecidas en el presente Decreto.

2.– Tramitar las solicitudes de excepciones de realización del módulo de Formación en Centro de Trabajo, efectuadas por los/as alumnos/as, en los términos establecidos en los apartados anteriores.

3.– Modulua garatzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztu dituen laguntza eta diru-laguntzak izapidetzea eta kudeatzea.

4.– Ikastetxeko Zuzendaritzari dagokio ikasleak enpresan garatzen dituen praktikekin lotuta instruktoreak garatutako prestakuntza-jarduera ziurtatzea (III. Eranskina).

5.– Esparru honekin lotuta dagozkion jarduera guztiak.

*10. artikulua.*– Lantokiko Prestakuntza-moduluaren koordinatzailea.

1.– Lantokiko Prestakuntzaren koordinatzailearen funtzio nagusiak izango dira:

– Ikastetxea eta lantokia harremanetan jartzea eta erlazio hori garatzea.

– Lantokiko Prestakuntza-moduluarekin erlazionatuta dauden tutoreek garatu beharreko ekintzak koordinatzea.

– Ikastetxeari dagokio, ikastetxeko zuzendariaren onespena lortu ondoren, administrazio-mailako izapideak egitea, bai eta laguntzak, eta abar eskatzeko eta kudeatzeko administrazio-agiriak betetzea ere.

2.– Pertsona bakarreko aginte-organoa izan daiteke, beti ere ikastetxearen Zentroko Antolamendu eta Funtzionamendu Araudian horrela adierazten bada.

*11. artikulua.*– Lantokiko Prestakuntza-moduluaren tutorea.

Honakoak Lantokiko Prestakuntzako tutoreek bete beharreko funtzio nagusiak:

– Lantokiko Prestakuntza-modulua sailkatuta dagoeneko curriculum-arlo edo –irakasgaiaren programaketa orokorra lantzea, dagokion ekoizpen-ingurura moldatuz.

– Lantokiko Prestakuntza-moduluaren prestakuntza-programa ikasleak enpresan garatuko duen prestakuntza eta ekoizpenarekin lotutakoa jarduera-multzo bat bezala garatzea, espazioan eta denboran behar bezala antolatuz; hori guztia lantokiko instruktorearekin koordinazioan egingo da.

– Lantokiko Prestakuntzaren ebaluazio-irizpideak zehaztea.

– Lantokiko Prestakuntza behar den bezala garatzen dela ziurtatzeko aldiro enpresara bisitak egitea, bai eta xede horrekin aurreikusitako bestelako bitartekoak martxan jartzea ere.

– Lantokiko Prestakuntzari ekin aurretik, bitartean eta ondoren, lantokiko instruktorearekin bilerak egitea, bai eta, orohar, praktiken garapenari buruzko informazioa eskuratzea ere.

3.– Tramitar y gestionar las ayudas y subvenciones que establezca el Departamento de Educación, Universidades e Investigación para la realización de este módulo.

4.– La Dirección del centro educativo podrá certificar la actividad formativa desarrollada por el/la instructor/a en relación con las prácticas de los/as alumnos/as en dicha empresa (Anexo III).

5.– Todas aquellas actuaciones que le son propias en esta materia.

*Artículo 10.*– El/la coordinador/a del módulo de Formación en Centro de Trabajo.

1.– El/la coordinador/a de Formación en Centro de Trabajo tendrá como funciones principales:

– El establecimiento y desarrollo de las relaciones entre el centro educativo y los de trabajo.

– La coordinación de las acciones de los/as diferentes tutores/as que tengan a su cargo módulos de Formación en Centro de Trabajo.

– La tramitación administrativa, con el V.º B.º del/a director/a del centro, y cumplimentación de los documentos administrativos correspondientes a la solicitud y gestión de ayudas, etc.

2.– Esta figura podrá tener la consideración de órgano unipersonal de gobierno, siempre y cuando figure en el Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF) del centro educativo.

*Artículo 11.*– El/la tutor/a del módulo de Formación en Centro de Trabajo.

Los/as tutores/as de Formación en Centro de Trabajo tendrán como funciones principales:

– Elaborar la programación global del área o materia curricular de la que forma parte el módulo de Formación en Centro de Trabajo, adecuándolo a las características concretas de su entorno productivo.

– Desarrollar y coordinar el programa formativo del módulo de Formación en Centro de Trabajo como un conjunto de actividades formativo-productivas, ordenadas en el espacio y en el tiempo, a realizar por el/la alumno/a durante su estancia en la empresa, en relación y coordinación con el/la instructor/a del centro de trabajo.

– Establecer los criterios de evaluación de la Formación en Centro de Trabajo.

– Valorar y supervisar el correcto desarrollo de la Formación en Centro de Trabajo mediante visitas periódicas a la empresa y otros medios previstos al efecto.

– Establecer reuniones con el/la instructor/a del centro de trabajo antes, durante y después del período de realización de la Formación en Centro de Trabajo, así como recabar, de forma global, información sobre el desarrollo de las mismas.

– Lantokiko Prestakuntzari ekin aurretik, bitartean eta ondoren, ikasleekin hainbat bilera egitea eta enpresa bakoitzean jarduerek duten garapenari buruzko informazioa eskuratzea.

– Ikaslearen Lantokiko Prestakuntzaren koadernoa gainbegiratzea eta kontrolatzea.

– Lantokiko Prestakuntza-modulua ebaluatzea eta sailkatzea, instruktoreak emandako txostenak kontuan hartuz.

*12. artikulua.–* Enpresari dagozkion zereginak.

1.– Praktiketako arduran bat eta instruktore bat edo gehiago izendatuko ditu enpresak (prestakuntza egokia izango dutenak), eta horien ardura izango da Lantokiko Prestakuntza koordinatzea, garatzea eta beraren jarraipena egitea. Gainera, ikasleei orientabideak emateaz gain kontsultak egiteko aukera ere emango zaie. Instruktoreen prestakuntza honako Dekretu honetako 3.3 artikuluan xedatu denaren arabera garatuko da.

2.– Enpresak erabakiko du praktikak egiteko ikasle-kopurua; horretarako honako irizpide hauei jarraituko zaie:

– 100 langile arte: ikasle bat bost langileko edo bosten frakzioa 10 ikasle arte.

– 100 langile baino gehiago: langileen %10era bitartean izango dira ikasleak gehienez.

– Lantokiko Prestakuntza egiten den unean dauden langileak bakarrik hartuko dira kontuan.

– Aipatu kalkulua sektore bakoitzerako edo ekoizpen-alor bakoitzerako egingo da.

3.– Aldez aurretik adostutako prestakuntza-jarduerak betetzeko konpromisoa izango dute ikasleak onartzen dituzten enpresek eta, hala badagokie, horiek aztertzekoa.

4.– Enpresari dagokio laneko segurtasun eta higienearekin lotuta aplikatu ahal den legeria betetzen dela zaintzea.

5.– Dekretuan zehaztutako irizpideei jarraituz emango zaio laguntza ekonomikoa enpresari eta Euskal Administrazioak erabakiko du ekitaldi bakoitzean zein kopuru eman.

6.– Enpresaren ardura izango da lantokian praktikak egingo dituzten ikasleen zerrenda langileen ordezkariei jakinaraztea, bai eta altak eta bajak zehaztea eta ikasleek praktikak garatzeko dituzten baldintzak adieraztea ere.

7.– Ezinezkoa da plantilako lanpostu bat enpresan Lantokiko Prestakuntza garatzen ari den ikasle batekin betetzea, eta ezinezkoa da, halaber, ikasleekin lan-harremanik edo zerbitzu-harremanik ezartzea, ikaslea Lantokiko Prestakuntza garatzen ari den bitartean, behintzat.

– Realizar reuniones con los/as alumnos/as que realizan Formación en Centro de Trabajo antes, durante y después de realización de la misma y obtener información sobre el desarrollo de la misma en cada empresa.

– Supervisar y diligenciar el cuaderno de Formación en Centro de Trabajo del/la alumno/a

– Evaluar y calificar el módulo de Formación en Centro de Trabajo teniendo en consideración los informes del/la instructor/a.

*Artículo 12.–* Actuaciones de la empresa.

1.– La empresa nombrará un/a responsable de prácticas y uno/a o varios/as instructores/as, con la debida formación, para la coordinación, desarrollo y seguimiento de la Formación en Centro de Trabajo, y con la dedicación necesaria que garantice la orientación y consulta del/la alumno/a, así como las relaciones con el/la tutor/a. La formación de los/as instructores/as se llevará a cabo según lo establecido en el artículo 3.3 del presente Decreto.

2.– La empresa establecerá el número máximo de alumnos/as que pueden realizar prácticas simultáneamente, con los siguientes criterios:

– Hasta 100 trabajadores/as: un/a alumno/a por cada cinco trabajadores/as o fracción de cinco hasta un máximo de 10 alumnos/as.

– Más de 100 trabajadores/as: hasta un máximo de alumnos/as del 10% de trabajadores/as.

– Se contabilizarán únicamente los/as trabajadores/as presentes en el momento de realización de la Formación en Centro de Trabajo.

– Dicho cálculo se efectuará por cada sector o área de producción.

3.– Las empresas que acojan alumnos/as quedan comprometidas al cumplimiento de la programación de actividades formativas previamente acordadas y, si fuese necesario, a la revisión de las mismas.

4.– La empresa velará por el cumplimiento de la legislación aplicable a los/as alumnos/as en materia de seguridad e higiene en el trabajo.

5.– La empresa recibirá las ayudas económicas de acuerdo a las directrices establecidas en este Decreto y en la cuantía fijada por la Administración Vasca para cada ejercicio.

6.– Las empresas se encargarán de informar a los/as representantes de los/as trabajadores/as de la relación de los/as alumnos/as que van a realizar prácticas en las mismas, así como de las altas y bajas a lo largo del curso y de la forma y condiciones en que los/as alumnos/as van desarrollando su actividad práctica.

7.– La empresa no podrá cubrir, ni siquiera de forma interina, ningún puesto de trabajo de plantilla con alumnos/as que estén realizando la Formación en Centro de Trabajo, ni establecer con ellos/as relación laboral ni de servicios, durante el período de realización de la Formación en Centro de Trabajo.

8.– Lantokiko Prestakuntza-modulua amaitzean, enpresaren lege-ordezkariak, ikastetxeko zuzendariarekin batera, ziurtagiri bat luzatu ahal du, bertan adieraziko delarik ikaslearen espedientea (IV. Eranskina).

9.– Era berean, Langileen Estatutuko Seigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera (Langileen Estatutuaren testu bategina martxoaren 14ko 1/1995 Dekretuaren bidez onetsi zen), euskal enpresak erakundeen aurrean ordezkatzen dituzten enpresa-erakundeek ægogoan izan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, honako Dekretu honen 3.3 artikulua aplikatuz, hitzarmenak sinatu ahal dituelaæ, ahalmena izango dute Lantokiko Prestakuntza Modulua burutu duten ikasleei diplomak luzatzeko.

*13. artikulua.–* Lantokiko Prestakuntza Moduluaren instruktorea.

1.– Lantokiko Prestakuntzaren instruktoreen funtzio nagusiak izango dira:

– Prestakuntza-plana ikastetxeko tutorearekin batera zehaztea eta aldiro bilerak egitea.

– Ikasleei arrera egitea, enpresari buruzko informazioa ematea, jarduerak garatzeko modua erakustea eta ikaslearen jarduera eta jarreren jarraipena egitea.

– Ikaslearen Lantokiko Prestakuntzaren koadernoa gainbegiratzea eta kontrolatzea.

– Ikaslearen gaitasun, trebetasun eta jarrerei buruzko amaierako txostena lantzea, Lantokiko Prestakuntza-moduluaren ebaluazioa egiteko orduan lana errazteko.

2.– Aipatutako funtzio guztien garapenaren ondorioz ez da inolako harremanik sortuko instruktorea eta Hezkuntza Administrazioaren artean.

*14. artikulua.–* Ikasleen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Ikasleek ez dute enpresarekin lan-erlaziorik, beraz, Lantokiko Prestakuntzak irauten duen bitartean ezinezkoa da ikaslearen eta enpresaren artean lan-kontraturik egitea, ez eta ikasleen bidez enpresan ordezkapenik egin edo eskaintza osoko eguneko presentziazko erregimenaren mendeko zerbitzu-erlaziorik ezarri ere. Salbuespenak egingo dira eskolatze-erregimen berezien kasuan.

2.– Ikasleak ez du eskubiderik enpresaren aldetik Lantokiko Prestakuntza-modulua garatzearen truke ordain-sari bezala diru-kantitate jakin bat jasotzeko.

3.– Ikasleak praktiken koadernoa bete beharko du. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak esandakoaren arabera jokatu beharko du eta, zentzu horretan, bertan zehaztuko dira burututako jarduerak, jarduerak

8.– El/la representante legal de la empresa, a la finalización del módulo de Formación en Centro de Trabajo, podrá suscribir un certificado conjuntamente con el/la Directora/a del centro educativo donde consta el expediente del/la alumno/a (Anexo IV).

9.– Igualmente las organizaciones empresariales que ostenten la representación institucional de las empresas vascas, de acuerdo con lo establecido en la Disposición Adicional Sexta del Estatuto de los Trabajadores, cuyo texto refundido fue aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/1995, de 14 de marzo, y con las que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación suscriba convenios en aplicación del artículo 3.3 del presente Decreto, podrán expedir diplomas a los/as alumnos/as que hayan realizado el módulo de Formación en Centro de Trabajo.

*Artículo 13.–* El/la instructor/a del módulo de Formación en Centro de Trabajo.

1.– Los/as instructores/as de Formación en Centro de Trabajo en los centros de trabajo tendrán como funciones principales:

– Establecer el plan formativo de común acuerdo con el/la tutor/a del centro educativo y realizar encuentros periódicos, facilitando su acceso al centro de trabajo.

– Acoger a los/as alumnos/as, informar sobre la empresa, enseñar cómo realizar las actividades y realizar un seguimiento de las actividades y actitudes del/la alumno/a.

– Supervisar y diligenciar el cuaderno de Formación en Centro de Trabajo del/la alumno/a.

– Emitir un informe final, acerca de las capacidades, habilidades y actitudes del/la alumno/a, para contribuir a la evaluación del módulo de Formación en Centro de Trabajo.

2.– El desarrollo de las funciones citadas no supondrá el nacimiento de ninguna relación laboral entre el/la instructor/a y la Administración Educativa.

*Artículo 14.–* Derechos y obligaciones de los/as alumnos/as.

1.– Los/as alumnos/as no tendrán, en ningún caso, vinculación o relación laboral con la empresa, por lo que no podrá formalizarse contrato de trabajo entre el/la alumno/a y la empresa durante la Formación en Centro de Trabajo, ni suplir ningún puesto de trabajo en la misma, ni establecer una relación de servicios en régimen presencial diurno de oferta total, contemplándose excepciones en otros tipos de regímenes de escolarización.

2.– El/la alumno/a no tendrá derecho a percibir cantidad económica alguna de la empresa en concepto de retribución por la realización del módulo de Formación en Centro de Trabajo.

